

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak lokailu fisikoak eta farmakologikoak arautuko ditu gizarte-zerbitzuen zentroetan

Berrikuntza moduan, profesionalek erabiltzaileei izan ditzaketen aurkako ondorioen berri eman beharko diete, eta erabiltzaileek haiek aplikatzearen aurka egin ahal izango dute

Jueves, 29 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak honako hauek arautzen dituen foru-dekretu bat onartu du: lokailu fisikoen erabilera (gerrikoak, txalekoak, mamuzizak edo barandak) eta tratamendu farmakologikoak egoitza-zentroetan nahiz eguneko zentroetan ezintasun fisiko edo psikikoren bat duten pertsonentzat eta adin nagusikoentzat.



Adin nagusiko bikote bat parketik paseatzen.

Gizarte Zerbitzuen 15/2006 Foru Legearen zortzigarren artikulua garatzen duen arauaren helburua lokailu-mota horiek ahalik eta gehien kentzea da; izan ere, gehiegi erabiliz gero, depresioa, antsietatea, desorientazioa, txizari ezin eustea eta zauriak eragin ditzake hartzaileen artean, oinarritzko eskubideak eta konstituzio-printzipioak urratzeaz gain: askatasun fisikoaren eskubidea esaterako, giza legezkoak ez diren edo iraingarriak diren tratatuak ez pairatzeko eskubidea, eta nortasunaren garapen askea izateko eskubidea.

Horretarako, zentro guztietarako jarduteko jarraibide homogeen batzuk ezartzen ditu. Berrikuntza moduan, dekretuak profesionalei "era argian eta sinplean" jakinaraztera behartzen die aplikatu aurretik lokailuek dituzten abantailen eta desabantailen inguruan.

Testuak ezartzen du, gainera, hartzaileek neurri fisiko eta farmakologiko horiek ukatu ahal izango dituztela "behar den zainketa alde batera utzi gabe", osasun-alorrean eskubideen eta betebeharren 17/2010 Foru Legean ezarritako mugen barnean.

Edozein kasutan, interesdunaren edo bere ordezkari legalaren baimena behar da. Gainera, berrikuntza moduan, lokailu-mota bakoitzak "informatutako baimena bereizita" izan beharko du, eta onarpen bakar bat ez da baliozkoa izango lokailu-mota ezberdinak onartu eta baimentzen direla ulertzeko.

Neurri horiek azken eskaera egitean aplikatu dira eta medikuaren aginduz, ezinbesteko salbuespenetan izan ezik "aparteko beharra dagoen egoeretan edo premiazko egoeretan, pertsonari berari edo besteei berehala kalterik ez eragiteko"; kasu horretan, medikuari abisatu beharko zaio "eta ahal den neurrian, berehala". Era horretan, diziiplina edo egokitasunagatik lokailuak ezartzea eragotzi nahi da

Gainera, behin aplikatuta, dekretuak jarraipen bat egitea behartzen du ahal den neurrian bizitza guztirako erabilera ekiditeko. Hala, zentroek banakako arreta-plan bat landu beharko dute, eta bertan erabiltzaile eta lokailuaren kontrol-jarraibideak zehaztu beharko dituzte, pertsonen ezaugarriak, bilatutako helburua, hura lortzeko kalkulaturako epea eta aurreikusten diren nahiz saihestu daitezkeen ondorioak. Eta, gainera, neurriak kentzeko jarraipen bat egin beharko dute sortu zuten arazoa konpontzen bada.

Nolanahi ere, dekretuak berme batzuk ezartzen ditu lokailuen erabileran: pertsonak oinarrizko behar guztiak beteta izatea eta bere ondorio txarrak prebenitzen edo gutxitzen dituzten zainketak jasotzea; neurri horiek aplikatzearen ondorioz, ez dadila isolatua edo baztertua izan; azken horiek ahalik eta epe laburrenean ken daitezela; aldezturik beste aukera batzuk erabiltzen saiatu izan dela; eta, beharra izanez gero, murriztaileenak ez direnak erabiltzea.

Neurri horien guztien azken xedea erabiltzaileei tratamendu duin bat bermatzea da, haien askatasuna eta autonomia ahalik eta gehien bermatuko dituenak.

Egoitzako eta eguneko zentroek urtebete dute, araua indarrean jartzen denetik, gizarte-zerbitzuak bertan dauden aginduei egokitzeke. Nafarroan 118 daude guztira, eta haietatik 91 bizitzeko zentroak eta babestutako pisuak dira (76 adin nagusikoentzat, 10 ezindu psikikoentzat eta 5 ezindu fisikoentzat), eta 27 eguneko zentro (12 adin nagusikoentzat, 8 ezindu psikikoentzat eta 7 ezindu fisikoentzat).

Guztira, 7.819 pertsonarentzako lekua dute. Zehazki, 6.438 plaza dago 65 urte baino gehiagoko pertsonentzat, 901 ezintasun psikikoren bat dutenentzat eta 480 ezintasun fisikoren bat dutenentzat.